


# AZPEITIKO PARKEAK AZTERTZEN

Gure herria asko aldatu da azken urteetan, eraikin berriak, errepideak, berdeguneak...

Herriko berdeguneek berebiziko garrantzia dute, izan ere, artifizializatutako eremu grisak asko ugaritu dira, eta hauen kontrapuntu gisara berdeguneek herria politagoa egiteaz gain, herritarrei zerbitzu ugari eskaintzen dizkiete.

Azpeitian parke eta berdegune ugari daude eta guztiak desberdinak dira, beraz, eskaintzen dizkiguten aukerak ere desberdinak dira: batzuk handiak dira, besteak txikiak, batzuk berdeguneak dituzte, besteek ez, batzuk zuhaitzez josita daude, besteek ez dute zuhaitzik... Guk **Loiolako parkea** aztertuko dugu.

## LOIOLAKO PARKEA



# AZPEITIKO PARKEAK AZTERTZEN

## ZER DAGO PARKE HONETAN?

1. Nolakoa da Loiolako parkea? Azpimarra itzazu parke honetan dauden zereendako elementuak eta gehitu falta direnak.

*Erreka, bidegorria, lorategia, zuhaitzak, zuhaixkak, mahaiak eta aulkiak, urmaela, iturria, tirolina, egokitutako abentura parkea, putzua, area, belardia, ur-txorroak...*

_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

2. Loiolako parkean zuhaitz ugari dago. Afrika, Amerika, Asia, Europa... Jatorri anitzeko 40 zuhaitz espezieetik gora aurki ditzakegu bertan, hosto erorkorrekoak batzuk eta hosto iraunkorrekoak besteak, altuak, baxuak, fruitudunak, lore ederrekoak, ikusgarriak edota apalak. Baina denak bizi-emaileak! Zuhaitz bakoitzaren itxuran erreparatzen baduzue, aniztasun handia dagoela konturatuko zarete.

Jarraian zuhaitz desberdinen hostoak dituzu. Ea asmatzen duzun zein zuhaitzenak diren. Adibidea jarraituz, elkar itzazu gezien bidez. Pistak behar badituzu, fitxaren eranskinean dituzu.

**Lobuluak:** espezie batzuen hostoak dituzten eremu irtenak. Hosto lobulatuak haritzetan ohikoak dira.

**Foliolo.** (hostoxka) deritzo hosto konposatuetan bana dezakegun atal bakoitzari. Foliolo bakarra erakusten duten hostoak sinpleak dira.

# AZPEITIKO PARKEAK AZTERTZEN



**HARITZA**  
*Quercus robur*  
Bost lobulu borobil baino gehiagoko hostoa. Ezkurak ematen ditu.



**PAGOA**  
*Fagus sylvatica*  
Lobulu gabeko hostoak. Itxura obalatua. Udaberrian iletxoak izaten dituzte ertzetan.



**ASTIGARRA**  
*Acer campestre*  
3-5 bitarteko lobulu borobileko hostoak, Itxura palmatua.



**URKIA**  
*Betula verrucosa*  
Itxura triangeluarra duten hostoak. Enbor zuria.



**LIZARRA**  
*Fraxinus excelsior*  
Ertz horzdunak dituzten folioloez (7-15) osatutako hosto konposatuak.

3. Zuhaitzez gain, ba al dago parke honetan ezagutzen duzun landarerik? Zer?

---

---

4. Bizidun gehiago ikusi al duzu (kattagorria, txoria, untxia, igela, sugea, zizarea, tximeleta, kakalardoa, loreak, ezkurra, honddoak, intsektuak, anfibioak...)? Zerrenda itzazu.

---

---



## AZPEITIKO PARKEAK AZTERTZEN

### ZER ESKAINTZEN DIGU PARKE BATEK?

5. Parke batek zerbitzu ugari eskaintzen dizkio gizarteari, hau da, bertan paseatu, jolastu atsedena hartu... egiten dugu. Baina beste balio batzuk ere baditu.

Irakurri arretaz **parkeek gizarteari eskaintzen dizkioten onurak** (eranskinean txertatuta dituzu) eta erantzun ondorengo galderak.

- Zerrenda horretako zerbitzu gehienak uste al duzu eskaintzen dizkigula parke honek?

Bai

Ez

- Horietakoren bat/batzuk aipatuko al zenituzke bereiziki?

---



---



---

- Zerbitzu horietako zeintzuk ez dizkigu eskaintzen? Zergatik?

---



---



---

6. Parkeek eskaintzen dizkiguten onurak edo zerbitzuak gure eguneroko bizitzan beharrezkoak ditugula uste al duzu? Arrazoitu erantzuna.

---



---



---

## NOLAKO PARKEA NAHI DUGU?

Azken urteetan parke berriak egin dituzte herrian. Esaterako, “barkuko parkea”, Valentina Agirre kalean dagoena, Udaletxe ondoko parke estalia, Sanjuandegiko La Salve kalean dagoena, Izarraizko Atea parkea... Parke hauek oso desberdinak dira elkarren artean. Batzuk berdeguneak dituzte, beste batzuk zuhaitzak (Loiolako parkea), beste batzuk ez dute ez belardi eta ezta zuhaitzik ere...

Ondoren herriko bi parkeen argazkiak dituzu. Begiratu ondo eta erantzun ondorengo galderari (gogoratu berdeguneek ematen dizkiguten onurak).



Loiolako parkea



Frontoi-Txikiko parkea

**7.** Parkeek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak kontuan izanda, zein da zure ustez hobeena bertan egoteko? Zergatik? Kontuan izan parke hauetaz gehien gozaten dugun garaia uda dela.

---

---

---

---

---

**8.** Nahikoak ote dira herrian ditugun parkeak? Ezezkoan, non egingo zenuke berri bat? Nolakoa izan beharko luke zure ustez? (izendatu ipiniko zenituzken elementuak. Garrantzitsua da izendatzen dituzun elementuak ipintzeko modukoak izatea).

---

---

---

---

---

# AZPEITIKO PARKEAK AZTERTZEN

## ERANSKINA

### Ba al zenekien...

Parke batean paseatu, jolastu eta atsedena hartzen dugu. Baina, beste onura batzuk ere eskaintzen dizkigu:

#### 1. Onura klimatikoak eta ingurumen balioak

- Parkeek hirietako mikroklima orekatzen laguntzen dute.
  - ✓ inguruneko tenperatura jaisten dute.
  - ✓ bertara joaten diren herritarrei itzala ematen diete.
  - ✓ bertako landaretzak inguruneko hezetasuna handitzen du.
  - ✓ hiria oxigenatu eta CO2a hartzen dute.
  - ✓ hiriko airea garbi mantentzen dute hiriko kutsadura gutxituz: gas kutsakorrak, polena, hautsak eta beste partikulak hartzen dituzte.
  - ✓ euri-uraren infiltrazioa sustatzen dute lurrunketa bidezko galera murriztuz.
  - ✓ hiriko zarata leuntzen dute.
  - ✓ ...

- ✓ era guztietako jendearen topaleku dira.
- ✓ aisialdia eta kirola egiteko leku ezin hobekak dira.
- ✓ irakaskuntzarako baliagarriak izan daitezke, bertako fauna eta landaretza ikertu eta behatu bailezakegu.
- ✓ ..

#### 2. Onura biologiko eta naturalak

- Parkeek izaera naturala ematen diote lurrari.
  - ✓ ingurumenean usain goxoa uzten dute.
  - ✓ soinu eta kolore aldakor anitz eskaintzen dizkigute (animalien soinuak, haizea, loreen koloreak, zuhaixken hostoak, zuhaitzak...).
  - ✓ hainbat animalia espezieren habitat naturala dira parkeak.
  - ✓ hiri-biodibertsitatea handitzen laguntzen dute: intsektuak, hegaztiak, ugaztun txikiak...
  - ✓ babestutako espezieen eta arriskuan daudenen aterpe dira.
  - ✓ espezie exotiko anitz hartu eta parke botaniko izan daitezke.

#### 4. Gizarte onurak eta onura psikologikoak

- ✓ gogoeta ezabatzen laguntzen dute.
- ✓ kontzentratzen laguntzen dute.
- ✓ estresari eta depresioari aurre egitea errazten dute.
- ✓ interakzio soziala errazten dute.
- ✓ ...

#### 5. Eta gainera, honako hauetan ere badute eragina...

- Ekonomian
  - ✓ parkeak interes turistikoa pizten duten guneak dira. Hortaz, diru-sarrerak handitzen dituzte.
  - ✓ Parkeak zaindu eta kudeatzeko lanpostu asko sortzen dira.
  - ✓ Gune berde zabalek urbanizazio berrietako etxebizitzaren salmenta erakargarriagoa egiten dute.
- Politikan
  - ✓ parkeen gaineko interesak ingurumenari buruzko araudia garatzen laguntzen du.
- Hiriko ingurumenean
  - ✓ parkeak babesteak hiriko ingurumen-inpaktua gutxitzen laguntzen du.
- Hirigintzan
  - ✓ hiritarrek parkeekiko duten interesak, erakundeak hiriguneetan gune berdeak sustatu eta zabaltzera bultzatzen ditu.

#### 3. Kultura, historia eta aisialdirako onurak

- Parkeek, gizarte eta kulturaren aldetik, hamaika aukera eskaintzen dituzte.
  - ✓ parkeko zuhaitzak urte asko bizi direnez historia eta kulturaren ikur izan daitezke.

## Gainera...

#### Zuhaitzek:

- ✓ Airea garbitzen dute eta oxigenoa ematen digute.
- ✓ Tenperatura jaisten laguntzen dute.
- ✓ Energia aurrezten laguntzen dute.
- ✓ Eguzkiaren UV izpietatik babesten dute.
- ✓ Animaliak babesten dituzte eta aterpea ematen diete.
- ✓ Lurra finkatzen dute.
- ✓ Elikagai- eta lehengai-iturriak dira.

#### Beste batzuk...

- ✓ Urtaroen arteko desberdintasunak bereizten laguntzen digute.
- ✓ Klima-aldaketari aurre egiten laguntzen digute.
- ✓ Lurraren higadura prebenitzen dute, baita desertifikazioa eta basamortutzea ere.